

2019

Mungiako Udala

Euskara alor sozioekonomikoan

Diagnostikoa



Luzarra 10. 48014 Bilbo - Bizkaia. Euskal Herria

T: (34) 944 480 000

F: (34) 944 757 229

<http://www.artez.eus>

e-posta: posta@artez.eus

IFK: F95015897

0 AURKIBIDEA

0	AURKIBIDEA	3
1	SARRERA	4
2	DATU OROKORRAK	5
3	HIZKUNTZA GAITASUNA	9
4	ZERBITZU HIZKUNTZA	12
5	LAN HIZKUNTZA	15
6	JARRERA	18
7	ADIBIDE GRAFIKOAK	19
8	LABURPENA ETA ONDORIOAK	23
9	ERANSKINAK	24

1 SARRERA

Mungiako Udalak herriko alor sozioekonomikoan euskarak duen erabilera eta presentzia ezagutu nahi ditu. Udalak badaramatza urte batzuk herriko merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzen, baina industria gunetako enpresetako datuak falta zaizkio argazkia osatzeko. Hori dela eta, 2018an Artez Euskara Zerbitzua Kooperatiba Elkarteak kontratatu zuen Udalak industria gunetako enpresen euskara diagnostikoa egiteko.

Datuak jasotzeaz gain, Mungiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta herriko enpresen arteko harremana sortu eta saretzen hasteko helburua ere izan du diagnostikoa egiteak.


Diagnostikoa egiteko, Mungiako bost poligonotako datuak bildu dira: Atxuri, Belako, Billela, Trobika eta Zabalondo. Aurrez aurreko bisitetan, telefonoz zein emailaz bildu dira datuak. Ondorengo orrietan diagnostikoaren emaitzak azaltzen dira.

2 DATU OROKORRAK

2.1 Lagina

Diagnostikoa osatzeko, Mungiako industria guneko enpresen zerrenda pasa zigun Udalak, guztira 254 enpresaren harremanetarako datuekin. Zerrenda hura oinarritzat hartuta, 100 enpresatako datuak bildu ditugu (eranskinen atalean zerrenda osoa). Erabili dugun laginak Mungiako industria guneko enpresen %40a islatzen du.


Diagnostikoa parte hartu duten 100 enpresak, Mungiako industria guneko 5 poligonoetan daude kokatuta: Atxurin, Belakon, Billelan, Trobikan eta Zabalondon.




Lagina aukeratzeko orduan, kontuan izan dugu 5 poligonoetako enpresak aukeratzea, tamaina ezberdinekoak izatea eta enpresa horiek herrian izan lezaketen influentzia maila. Dena den, harremanetan jarri garen enpresek galdetegia betetzeko adierazi duten prestutasunak izan du eragina, batez ere, laginean.

Euskararen erabilera eta presentziaren datuak biltzeko, 2 metodo erabili genituen: aitortutako datuak biltzea eta zuzeneko behaketa.

DATUAK BILTZEKO METODOLOGIA		Enpresa kopurua
Aitortutako datuak	Emailez	27
	Telefonoz	53
Zuzeneko behaketa	Aurrez aurreko bisitak	20




Datuak biltzen hasi aurretik, Udalak gutuna (eranskinen atalean ikusgai) bidali zien Mungiako industria guneko enpresa guztiei. Gutun horretan hizkuntza egoeraren inguruko diagnostikoa egiteko asmoa azaltzen zen, eta laster deiren bat jasoko zutela jakinarazi zitzaien.



2.1....1 Email bidezko datu bilketa

Google inprimakiak aplikazioa erabilita, galdetegia emailaz bidali zitzaien 251 enpresari. Horietatik, 27 enpresak erantzun zuten galdetegia emailaz, %11k.


Datu baseko 24 emailek errorea ematen zuten, eta gainontzekoek ez zuten erantzunik bidali.



2.1....2 Telefono bidezko datu bilketa

Galdetegiak emailez erantzun ez zuten enpresei eta helbide elektronikorik ez zutenei telefonoz deitu genien datuak biltzeko edo aurrez aurreko bisita baterako hitzordua jartzeko. Guztira 227 dei egin ziren Mungia enpresetara, eta hauek izan ziren emaitzak:

TELEFONO DEIEI ERANTZUNA	
Aurrez aurreko bisita egiteko hitzordua adostu genuen	20
Telefonoz galdetegiari erantzuteko prest agertu ziren	53
Galdetegiak emailez bidaltzeko eskatu zuten	14 (batek bakarrik bidali zuen bueltan galdetegiak erantzunda)
Telefonoak errorea ematen zuen	50
Ez zuten hartzen (gutxienez bi egunetan deitu zitzaien)	46
Ez ziren galdetegiak erantzuteko interesik agertu (denbora falta, interesik eza...)	44



2.1....3 Aurrez aurreko bisitak

Datuak behaketa zuzenaren bitartez jasotzeko, aurrez aurreko bisitak egin genituen 20 enpresatara. Aurrez aurreko bisitak egiteko, lehenik hitzordua adostu genuen telefonoz. Bisitetan, galdetegia pasatzeaz gain, geure begiez jaso genituen hainbat datu, esaterako, hizkuntza paisaiari dagozkionak.

2.2 Galdetegia

Diagnostikoa osatzeko, prozesuaren lehenengo pausoa galdetegia sortzea izan zen. Horretarako, EME Erreferentzia Marko Estandarra izan genuen oinarri, baina Mungiako kasuistikara moldatuta. Galdetegiak ondorengo atalak ditu (galdetegi osoa eranskinen atalean dago):

GALDETEGIAREN ATALAK	AZPIATALAK
Datu orokorrak	
Hizkuntza gaitasuna	
Zerbitzu hizkuntza	Erakundearen irudia
	Bezeroekiko harremana
Lan hizkuntza	Barne komunikazioa
	Kanpo harremanak
	Kudeaketa sistema
Hizkuntza jarrerak	


Galdetegiak Udalaren oniritzia jaso zuen, eta datuak biltzeari ekin genion.

3 HIZKUNTZA GAITASUNA

3.1 Langileen hizkuntza gaitasuna


Jaso ditugun datuen arabera, Mungiako industria gunean lan egiten duten langileen %45 gai da euskaraz hitz egiteko, %8 gai da ulertzeko eta %47k ez du euskaraz ulertzen. Kontuan hartu beharrekoa da datu hauek galdetegia erantzun duten langileek aitortutako datuak direla, eta ez direla kontrastatu ziurtagiri edota hizkuntza-proba bidez. Hortaz, datu orientagarri gisa ulertu behar dira.

Bezeroekin edota herritarrekin harreman zuzena duten langileen artetik, %46 euskaldunak dira, ia erdiak.



Ondorengo taulan, datuak generoaren arabera sailkatuta:


HIZKUNTZA GAITASUNA			
	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Langile kopurua (lagineko totala)	421	1.400	1.821
Euskaraz hitz egiteko gai diren langileak	219	598	817
Euskaraz ulertzen duten langileak (baina hitz egiteko gai ez direnak)	35	109	144
Euskaraz ulertzen ez dutenak	167	693	860
Bezeroekin harreman zuzena duten langileak	-	-	818
Euskaraz hitz egiteko gai dira	-	-	378
Arduradun euskaldunak	-	-	79



3.2 Hizkuntza gaitasuna, enpresaka

Enpresa bakoitzaren egoera aztertuz gero, Mungiako enpresen %18tan ez dago euskaraz hitz egiteko gai den langilerik, eta enpresen %18an, bezeroekin harreman zuzena duten langile bakar batek ere ez daki euskaraz. Horrek esan nahi du, enpresen %18 ez dela gai gaur gaurkoz euskaraz lan egiteko, ezta bezeroei zerbitzua euskaraz eskaintzeko ere (ez, behintzat, enpresako barne baliabideekin).

Bestetik, datuek erakusten dute bezeroekin zuzeneko harremana duten langileen artean altuagoa dela euskararen ezagutza.



4 ZERBITZU HIZKUNTZA


Zerbitzu hizkuntzaz ari garenean, enpresek bezeroekin erabiltzen duten hizkuntzaz ari gara. Hau da, zerbitzua zein hizkuntzatan eskaintzen duten. Atal honen barruan, bi azpiatal bereizi ditugu: erakundearen irudia eta bezeroarekiko harremana.

4.1 Erakundearen irudia

Ondorengo elementuak hartu ditugu kontuan erakundearen irudian erabiltzen den hizkuntza neurtzeko: lantegiko errotulu nagusia, bezeroei zuzendutako kartelak, ordutegia, publizitatea, webgune korporatiboa eta sare sozialak.

Elementu guztietan, gaztelania da erabiltzen den hizkuntza nagusia. Euskararen presentzia oso urria da; batz bestea, kasuen %12an baino ez da agertzen euskara erakundearen irudia osatzen duten elementuetan. Publizitatean eta bezeroei zuzendutako errotulazio txikian du euskarak presentzia handiena (%17), eta ingurune digitalean apalena (%7 inguru).

ERAKUNDEAREN IRUDIA									
	Euskaraz	Euskaraz gehiago	Elebietan	Gaztelaniaz gehiago	Gaztelaniaz	Beste hizkuntza bat	Izen propioa da	Ez dute	Euskararen presentzia
Errotulu nagusia	5	-	6	-	56	11	15	7	%11
Kartelak	0	2	15	18	51	0	-	14	%17
Ordutegia	2	0	12	0	43	0	-	43	%14
Publizitatea	2	0	15	3	24	1	-	55	%17
Webgunea	0	0	8	2	61	1	-	28	%8
Sare sozialak	0	0	6	3	17	3	-	71	%6
Euskararen presentzia erakundearen irudiko elementuetan:									%12




4.2 Bezeroekiko harremana


Bezeroekiko harremana zein hizkuntzatan gauzatzen den jakiteko, ahozko harremanak (aurrez aurre zein telefonoz) eta idatzizko harremanak (emailak, gutunak...) hartu ditugu kontuan. Horrez gain, bezeroei zuzendutako inprimakietan erabilitako hizkuntza ere neurtu dugu: fakturak, aurrekontuak...

Gaztelaniaren erabilera da nagusi bezeroekiko harremanetan ere. Ahozko harremanetan, telefonoz zein aurrez aurre, elkarriketen %25 ingurutan erabiltzen da euskara; gainontzekoetan, gaztelania gailentzen da. Idatzizko harremanetan, berriz, are txikiagoa da euskararen erabilera: %11 mezu elektronikoetan, eta %4 baino ez faktura, aurrekontu eta bestelako inprimakietan.

	Euskaraz	Euskaraz gehiago	Ele bietan	Gaztelaniaz gehiago	Gaztelaniaz
Telefonoz: lehen hitza	11	4	12	12	61
Telefonoz harremana	15	9	-	29	47
Aurrez aurre lehen hitza	16	8	13	16	47
Aurrez aurre harremana	17	8	-	29	46
Emailak	2	3	6	18	71
Fakturak, aurrekontuak...	0	0	4	4	92



Bezeroen jatorriak ez du justifikatzen kasurik gehienetan gaztelaniaren nagusitasuna. Izan ere, enpresen %58an EAEkoak edo eremu euskaldunekoak dira bezeroen erdiak baino gehiago. Enpresen %15ean, %50 inguru dira EAE edo eremu euskalduneko bezeroak, eta enpresen %27an eremu euskaldunetik kanpokoak dira bezero gehienak.



5 LAN HIZKUNTZA

Lan hizkuntzaz ari garenean, enpresaren barne funtzionamenduan erabiltzen den hizkuntzaz ari gara. Hiru azpiatal bereizi ditugu: barne komunikazioa, kanpo harremanak eta kudeaketa sistema.


5.1 Barne komunikazioa

Azpiatal honetan, batetik, langileen arteko komunikazio hizkuntza zein den aztertu dugu, idatziz zein ahoz. Bestetik, enpresak langileei zuzendutako komunikazioa zein hizkuntzatan bideratzen duen ere behatu dugu (kontratuak, nominak, lantegiko hizkuntza paisaia...), baita enpresako barne dokumentuak zein hizkuntzatan sortzen diren ere.

Azpiko taulan ikus daitekeen moduan, langileen ia %50 euskaraz hitz egiteko gai izan arren, langileen arteko komunikazioan gaztelania gailentzen da, bai idatziz (kasuen %91), bai ahoz (%82).

Lanerako hizkuntza ere gaztelania da kasurik gehien-gehienetan, eta gaztelania hutsean idazten dira barne dokumentuak, txostenak, memoriak, kontratuak, nominak, laneko hizkuntza paisaiako elementuak... Gauza bera gertatzen da lanerako erabiltzen dituzten baliabide informatikoein, gaztelaniaz instalaturik dituzte.


	Euskaraz	Euskaraz gehiago	Elebietan	Gaztelaniaz gehiago	Gaztelaniaz
Laneko hizkuntza paisaia	0	3	6	19	72
Idatzizko komunikazioa	1	1	6	20	71
Ahozko komunikazioa	1	3	11	22	62
Kontratuak	0	0	2	1	95
Nominak	0	0	2	0	96
Barne dokumentuak	0	1	2	1	96
Baliabide informatikoak	0	0	1	1	98




5.2 Kanpo harremanak

Kanpo harremanen azpiatalean, administrazioarekin, hornitzaileekin eta enpresa kolaboratzaileekin harremanak zein hizkuntzatan dituzten galdetu diegu. Atal honetan ere gaztelania nagusi izan arren, aipagarria da administrazioarekiko harremanetan beste kasuetan baino apur bat handiagoa dela euskararen erabilera, %22ko presentziarekin. %11ko presentzia du erakunde kolaboratzaile edo aliatuekiko harremanen kasuan, eta %4koa baino ez hornitzaileekiko komunikazioan.

	Euskaraz	Euskaraz gehiago	Elebietan	Gaztelaniaz gehiago	Gaztelaniaz	Beste hizkuntza bat
Administrazioarekin	5	8	9	9	69	0
Hornitzaileekin	0	3	4	13	78	2
Kolaboratzaileekin	1	3	7	9	79	0




Hornitzaileekiko harremanetan euskararen presentzia hain baxua izateak izan dezake arrazoi bat. Izan ere, enpresen %45ean hornitzaileen erdiak baino gehiago EAEtik kanpokoak dira, eta enpresen %6ean hornitzaile bakar bat ere ez da EAEkoa. Hau da, hornitzaile gehienekin ez dute euskaraz egiteko aukerarik.



5.2 Kanpo harremanak

Kudeaketa sistemari dagokionez, euskarari ematen zaion papera ezagutu nahi izan dugu. Hau da, euskara kudeaketa sisteman zehar lerro gisa txertatuta duten ala ez, edota zein paper ematen dioten. Batetik, langileen kontratazio prozesuetan euskararen ezagutza baloratzen duten neurtu dugu; bestetik, enpresan euskara planik edota euskararen kudeaketarako baliabiderik duten ere aztertu dugu.

Kontratazio politikari dagokionez, galdetegia osatu duten 100 enpresetatik 21etan baloratzen da euskararen ezagutza maila langile bat kontratatzeke prozesuan. Kasu bakar batean, euskaraz jakitea ezinbestekoa da enpresako langilea izateko. Gainontzeko kasuetan, euskara jakiteari balioa ematen zaio aukeraketan (batez ere, jendaurreko lanpostuetarako), baina ez da ezinbesteko baldintza.



Euskara kudeaketa sisteman zehar lerro gisa lantzeari buruz, enpresen %99ak ez du euskara planik, ezta euskararen kudeaketarako baliabiderik ere. Bestalde, enpresen %10ak ezagutzen ditu Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lan munduan euskara sustatzeko ematen dituzten diru laguntzak, baina 10etik 9k inoiz ez dituzte laguntza horiek eskatu.

Galdetegia erantzun duten 100 enpresetatik bakarrik du euskara plana martxan gaur egun. Enpresa horrek Bikain ziurtagiria ere badu. Gainontzeko enpresek ez dute euskara ziurtagiririk.


	Bai	Ez
Kontratazio politikan euskararen ezagutza baloratzen da	21	78
Enpresak euskara plana du	1	98
Enpresak euskara ziurtagiri bat du	1	97
Enpresak euskararen kudeaketarako baliabideak ditu	1	99
Enpresak euskararen sustapenerako diru laguntzen berri du	10	90

6 JARRERA

Euskararekiko jarreraren atalean, enpresan euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzeko prest egongo ziratekeen galdetu genien, bai zerbitzu hizkuntzari dagokionez, baita lan hizkuntzari dagokionez ere. Euskara plan bat martxan jartzeko prestutasunaz ere galdetu genien.

Enpresen %45ak ezezko garbia eman zuen. Arrazoen artean, “beharrik eza” (bezeroen eskaera ezagatik), “gaitasunik eza” (langileen ezagutza mailagatik) eta “interesik eza” aipatu zituzten gehienek. Beste arrazoi bat ere aipatu zuten batzuek: “eskumenik eza”; izan ere, Mungiako industria gunean kokaturik dauden enpresa ugari nazioarteko enpresen parte dira, eta hizkuntzen kudeaketari dagozkion erabakiak goragoko organoek hartzen dituzte: errotulazioa, barne komunikazioa, lan hizkuntza...

	Bai	Ez	Pentsatuko lukete
Enpresa prest dago bezeroei zerbitzua euskaraz eskaintzeko neurriak hartzeko	27	45	28
Enpresa prest dago lan hizkuntzan euskararen erabilera areagotzeko	29	45	26
Enpresa prest dago, baliabideak eskainiz gero, euskara plan bat martxan jartzeko	17	47	36



7 ADIBIDE GRAFIKOAK


Aurrez aurre egin ditugun bisitetan, behaketa zuzena erabili dugu hizkuntza paisaiari dagozkion datuak jasotzeko. Hona hemen bisitetan jasotako adibide grafiko batzuk:

7.1 Euskara hutsean




7.2 Euskaraz eta gaztelaniaz (eta hizkuntza gehiagotan)





7.3 Gaztelaniaz







8 LABURPENA ETA ONDORIOAK

Laburtuz, argi dago Mungiako industria guneko enpresetan gaztelania dela nagusi bezeroei zerbitzua eskaintzerako orduan eta lanerako garaian. Euskararen presentzia oso txikia da eremu guztietan, eta ahozkoan harremanetan pisu apur bat gehiago badu ere, idatzizko harremanetan ia ez du presentziarik.

Langileek aitortutako ezagutza datuak kontuan izanik (ia langileen erdia da euskaraz hitz egiteko gai, eta erdia baino apur bat gehiago euskaraz ulertzeko gai), euskararen presentzia urria ez dago ezagutza mailarekin lotuta. Enpresen %72ak badu gaitasuna zerbitzua neurri handiago batean euskaraz eskaintzeko, baita lan prozesuetan euskarari pisu handiagoa emateko ere.

Euskarari balio handiagoa ematea da euskararen presentzia handitzeko falta den pausoa. Izan ere, Mungian kokatu arren eta bezeroen erdiak baino gehiago eremu euskaldunekoak izan arren, enpresek ez dute euskara erabiltzeko beharrik ikusten, galdetegia erantzun dutenean somatu dugunaren arabera.

Bestalde, bada diagnostiko honek jasotzen dituen datuetan eragina izan dezakeen faktore bat: Mungiako industria gunean kokatzen diren enpresen tipologia. Izan ere, bi motatako enpresak topatu ditugu gehienbat: batetik, langile oso gutxiko enpresa txikiak, hizkuntzen kudeaketarako baliabiderik izatea oso zail izango luketenak. Bestetik, nazioarteko multinazionalen parte diren enpresa ugari topatu ditugu, hizkuntzen kudeaketarako eskumenik ez dutenak, hizkuntzak goragoko organoek kudeatzen baitituzte. Kasu horietan, gaztelaniaz gain ingelesa eta frantsesa erabiltzen dituzte, baina ez euskara; ingelesaren eta frantsesaren presentzia nabarmena da, esaterako, telefonoetako erantzungailuetan, webguneetan, publizitatean, hornitzaileekiko harremanetan...

Ondorioz, gaur egun Mungiako enpresetan dagoen hizkuntza gaitasuna baliatuta alor sozioekonomikoan euskararen presentzia areagotzeko pausoak eman nahi badira, bi faktore ikusten ditugu ezinbesteko: batetik, enpresa txikiei beharrezko baliabideak eskaintzea, ekonomikoak zein teknikoak. Bestetik, enpresa txikien zein handien kasuan, euskararekiko eta hizkuntza eskubideekiko sentikortze lan sakona.

9 ERANSKINAK

9.1 Udalak bidalitako gutuna

Jaun/ Andre agurgarriak:

Mungiako Udalak zuokaz hartu-emonetan jarri gura dau herriko enpresen hizkuntza egoera orokorraren barri izateko. Mungiako 5 industrialdeetan (Atxuri, Belako, Billela, Trobika eta Zabalondon) dagozan enpresetan euskerearen presentzia eta erabilerea zenbatekoa dan jakin gura dau; hau da, gaur egungo "argazkia" zein dan jakin. Gero, hori kontuan hartuta, zein pauso edota zerbitzu emoteko beharra eta aukerea egon leitekeen aztertzeke.

Diagnostikoa egiteko, ARTEZ Euskara Zerbitzua izeneko enpresea kontratau dau Udalak. Eta bertako teknikariak arduratuko dira datu-bilketa egiteaz; telefonoz, posta elektronikoz zein aurrez aurreko bisiten bidez jasoko dabez hizkuntza egoerearen inguruko datuak.

Beraz, baleiteke datozen asteetan zehar Artez enpresako teknikaria zuokaz hartu-emonetan jartea. Bisiten kasuan, hitzorduak aurrez adostuta egingo dira, inoiz bere ez ezustean.

Zuen laguntza ezinbestekoa jaku Mungiako arlo sozio-ekonomikoaren hizkuntza egoerea ezagutzeko. Horregaitik, aldeztu aurretik eskerrak emoten deutsueguz.

Adeitasunez,

Estimados/as señores/as:

El Ayuntamiento de Mungia desea ponerse en contacto con vosotros/as ya con objeto de conocer la situación lingüística (presencia y uso del euskera) de las empresas ubicadas en los 5 polígonos industriales (Atxuri, Belako, Billela, Trobika y Zabalondo). Queremos obtener una fotografía más amplia del sector socioeconómico de Mungia, y así analizar qué servicios podemos ofrecer desde el Ayuntamiento.

Para realizar el diagnóstico, se han contratado los servicios de la empresa ARTEZ Euskara Zerbitzua. Las personas técnicas de ésta empresa se encargarán de la recopilación de datos, a través de llamadas telefónicas, vía email y visitas presenciales.

Por lo tanto, es posible que las próximas semanas una persona de la empresa Artez se ponga en contacto con vosotros/as. En el caso de las visitas presenciales, siempre se realizarán con cita previa, nunca por sorpresa.

Vuestra colaboración nos es imprescindible para conocer la situación lingüística de Mungia. Por ello, queremos daros las gracias de antemano.

Atentamente,

AGER IZAGIRRE LOROÑO

Mungiako Alkatea



9.2 Enpresen zerrenda

ENPRESAREN IZENA	NOLA BETE DU GALDETEGIA?	SEKTOREA	HELBIDEA	ZENBAKIA	POLIGONOA
ACTIVA INGENIEROS, S.L.	Telefonoz	Zerbitzuak	PLENTZIA BIDEA	13, C PAB.	Billela
AGUIPLAST SUBSTRAT	Telefonoz	Beste bat	TEJERA BIDEA	02, J-K PAB.	Belako
AGUIRREZABAL HERMANOS S.A.	Emaileraz	Industria	Lauaxeta Olerkari	52A, 07-08. PAB.	Atxuri
ALKARGO	Aurrez aurre		ARITZ BIDEA	83	Belako
ALQUIBER	Emaileraz	Zerbitzuak	LUISENE BIDEA	14	Belako
APLICACIONES BIRLE, S.L.	Telefonoz	Industria	SAN ANTON BIDEA	01	Belako
ARGIMETAL, S.L.	Emaileraz	Industria	MARTINTXU KALEA	2, E PAB.	Zabalondo
ARRI AUTOMOCION, S.L.	Aurrez aurre	Zerbitzuak	MARTINTXONE BIDEA	05, B PAB.	Trobika
ARTELAN ARMAIRUAK, S.L.L.	Emaileraz	Industria	LUISENE BIDEA	02, 301.MOD.	Belako
AZKOYEN ELECTRICIDAD, S.L.	Aurrez aurre	Industria	MARTINTXONE BIDEA	07	Trobika
BAGA BIGA PRODUKZIOAK S.L.	Emaileraz	Zerbitzuak	KARMELO ETXEGARAI	21. C PAB.	Billela
BARATZE TROBIKA	Aurrez aurre	Industria	LARRAGANE BIDEA	01	Trobika
BASEPACK, S.L.	Emaileraz	Industria	KARMELO ETXEGARAI	45. A PAB.	Billela
BAUSSA	Emaileraz	Industria	PLENTZIA BIDEA	05	Billela
BELAKO AUTOMOCION SL	Emaileraz	Beste bat	MAKOAGA	12, A PAB	Belako
BELGICAST INTERNACIONAL, S.L.	Telefonoz	Industria	MENDIKO ETXEBARRI BIDEA	03	Zabalondo
BEMED PRODUCTOS Y DISTRIBUCIONES	Aurrez aurre	Beste bat	Lauaxeta Olerkari	52A, 17. PAB.	Atxuri
BIDEGANE KARROZERIA S.L.U.	Telefonoz	Industria	Lauaxeta Olerkari	52A, 33. PAB.	Atxuri
BIGAMODA ATELIER, SLL	Telefonoz	Industria	LUISENE BIDEA	04, A11 PAB. BELAKO II ELKARTE	Belako
DURADISC	Telefonoz	Zerbitzuak	LUISENE BIDEA	02, 501.MOD.	Belako
BILBOPLASTIK, S.L.	Aurrez aurre	Industria	ERRERUENA KALEA	08, H PAB.-10.	Zabalondo
BIZGORRE, S.L	Aurrez aurre	Industria	LUISENE BIDEA	02, 202.MOD.	Belako
BIZKAILINER SL	Telefonoz	Industria	LUISENE BIDEA	04, AO4 PAB. BELAKO II ELKARTE	Belako

BODEGAS UBIDE	Telefonoz	Zerbitzuak	DERIO BIDEA	55, C PAB	Zabalondo
BOGA GARAGARDOA	Aurrez aurre	Industria	MAKOAGA	02, A7-A8 PAB. BELAKO II ELKAR	Belako
BOLSAS CASTRESANA S.L.	Telefonoz	Industria	TORROTO BIDEA	03	Belako
BOSTLAN, S.A	Telefonoz	Industria	MARTINTXONE BIDEA	01	Trobika
CALDERERÍA BELAKO 2007, S.L.L.	Emailez	Industria	TEJERA BIDEA	19, C PAB.	Belako
CARROCERIAS MUNGIA	Telefonoz	Beste bat	KARMELO ETXEGARAI	21. J PAB.	Billela
CDE QUIMIK	Emailez	Zerbitzuak	DERIO BIDEA	55, D PAB.	Zabalondo
CESPA	Telefonoz	Zerbitzuak	LAUKARIZ BIDEA	68A, B PAB.	Zabalondo
CHZ LIGHTING	Telefonoz	Zerbitzuak	MARTINTXONE BIDEA	01A, A. PAB.	Trobika
CIRET IBERIA	Emailez	Beste bat	Lauaxeta Olerkari	54, A PAB.	Atxuri
CONSTRUCCIONES Y MANTENIMIENTOS JATABE, S.L.	Emailez	Eraikuntza	GAZANDA BIDEA	01	Belako
CONTROIL	Telefonoz	Beste bat	LANDETA KALEA	02, D PAB.	Trobika
COTRANSA	Aurrez aurre	Industria	LANDETA KALEA	04, A-B PAB.	Trobika
CRISTALERIA D'SPEJO Y LUZYMAGLASS	Telefonoz	Industria	TEJERA BIDEA	04.1. 11-12 PAB.	Belako
DEBUSMAN PASTRANA SL	Telefonoz	Industria	LUISENE BIDEA	04, AO6 PAB. BELAKO II ELKARTE	Belako
EASYFLOOR S.L.	Aurrez aurre	Industria	LUISENE BIDEA	04, AO1 PAB. BELAKO II ELKARTE	Belako
ECOMET XXI, S.L.	Emailez	Industria	ARITZ BIDEA	65A	Belako
ELECTROBOMBAS DEL NORTE, S.L	Telefonoz	Zerbitzuak	TEJERA BIDEA	04.2. 13-14 PAB.	Belako
ELECTROTECNICA ARTECHE HERMANOS, S.L.	Aurrez aurre	Industria	DERIO BIDEA	28	Zabalondo
EQUIPEL	Telefonoz	Industria	GAZANDA BIDEA	03	Belako
ERAIKAN BERRIKUNTZAK SL	Telefonoz	Eraikuntza	LUISENE BIDEA	04, A15 PAB. BELAKO II ELKARTE	Belako
ESKUOLA DERIVADOS DEL PATO S.C.	Emailez	Beste bat	KARMELO ETXEGARAI	17	Billela
ETRA NORTE, S.A.	Emailez	Eraikuntza	ERRERUENA KALEA	01, A PAB.	Zabalondo
FLUYTEC, S.A.	Telefonoz	Industria	MAKOAGA	05, HI PAB.	Belako
FORJAS DE BELAKO, S.A.	Aurrez aurre	Industria	MANTZORRI BIDEA	04	Belako

FORMESA	Aurrez aurre	Industria	MATXIN BIDEA	02	Trobika
GARAIA, S.COOP.LTDA.	Aurrez aurre	Beste bat	DERIO BIDEA	52A	Zabalondo
GARAJE AURTENETXE	Aurrez aurre	Beste bat	Lauaxeta Olerkari	52A, 34. PAB.	Atxuri
GOIMAR	Emailez	Industria	BERMEO BIDEA	15	Trobika
HUNE RENTAL SLU	Emailez	Zerbitzuak	ARITZ BIDEA	77	Belako
IKUSMEN VISION ARTIFICIAL, S.L.	Aurrez aurre	Industria	LUISENE BIDEA	02, 305.MOD.	Belako
IMPRESION GRAFICOLOR 2000, S.A.	Telefonoz	Industria	MARTINTXONE BIDEA	02A	Trobika
INALI	Telefonoz	Industria	GAZANDA BIDEA	01	Belako
INDARLAN OBRAS Y EVENTOS S.L.L.	Emailez	Zerbitzuak	BERMEO BIDEA	05	Trobika
INELAC PRESURE SYSTEMS, S.L.	Emailez	Industria	DERIO BIDEA	41	Zabalondo
INTENANCE	Telefonoz	Industria	ERRERUENA KALEA	04, A PAB.	Zabalondo
INYEKTADOS BELAKO, S.L.	Telefonoz	Industria	LUISENE BIDEA	02, 102.MOD.	Belako
K3K SERVICIOS	Telefonoz	Zerbitzuak	Lauaxeta Olerkari	52A, 05. PAB.	Atxuri
KONER ELEVACIÓN S.L.	Telefonoz	Beste bat	TEJERA BIDEA	04.2. 11-12 PAB.	Belako
LUMA	Aurrez aurre	Industria	GAZANDA BIDEA	01	Belako
MAIPE COMERCIAL	Telefonoz	Zerbitzuak	TORROTO BIDEA	01, B PAB.	Belako
MARIO MITXELENA MOTOS, S.L.	Telefonoz	Zerbitzuak	Lauaxeta Olerkari	52A, 15. PAB.	Atxuri
MARKAIDA ALQUILERES Y SUMINISTROS, S.L.	Aurrez aurre	Industria	ENEPERI KALEA	02	Belako
MATERIALES DE CONSTRUCCION MUNGIA, S.L.	Telefonoz	Zerbitzuak	TEJERA BIDEA	04.1. 17 PAB.	Belako
MAX BEITIA	Telefonoz	Zerbitzuak	GAZANDA BIDEA	01	Belako
MECANIZADOS MECAONDO S.L.	Telefonoz	Industria	MENDIKO ETXEBARRI BIDEA	5	Zabalondo
MECANIZADOS MINTEGI, S.L.	Aurrez aurre	Industria	MARTINTXONE BIDEA	15	Trobika
METALURGICA COEX SL	Emailez	Industria	MAKOAGA	02, A4 PAB. BELAKO II ELKARTEG	Belako
MIBA	Telefonoz		DERIO BIDEA	43	Zabalondo
MODELOS BELAKO S.L.L.	Emailez	Industria	GAZANDA BIDEA	01	Belako
MOONROCK KULTUR ELKARTEA	Telefonoz	Zerbitzuak	Lauaxeta Olerkari	54, C PAB.	Atxuri

MURIEDAS ANAIK, S.L.	Telefonoz	Industria	LAUKARIZ BIDEA	68A, F PAB.	Zabalondo
NERPAL ELECTRICIDAD Y TELECOMUNICACIONES	Telefonoz	Industria	DERIO BIDEA	55, B PAB	Zabalondo
NORMESA	Telefonoz	Industria	PLENTZIA BIDEA	09	Billela
PARADELO	Telefonoz	Zerbitzuak	DERIO BIDEA	49, B PAB.	Zabalondo
PETIT FORESTIER ESPAÑA, S.L.	Telefonoz	Zerbitzuak	MENDIKO ETXEBARRI BIDEA	2A	Zabalondo
PRIPLASTIC	Telefonoz	Zerbitzuak	ETXATXU KALEA	01, A-B PAB.	Trobika
PROPAMSA	Telefonoz	Zerbitzuak	LAUKARIZ BIDEA	68A, C PAB.	Zabalondo
PROTECCION LABORAL ADYPA	Telefonoz	Zerbitzuak	MARTINTXU KALEA	05	Zabalondo
REHABILITACION DE EDIFICIOS ETXEZAR	Emailez	Eraikuntza	Lauaxeta Olerkari	52A, 25. PAB	Atxuri
RENTOBRA ALQUILER MAQUINARIA DE OBRA S.L.	Emailez	Zerbitzuak	MARKOSEN KALEA	01	Trobika
ROTUR KOPY, S.L.	Telefonoz	Zerbitzuak	Lauaxeta Olerkari	52A, 19. PAB.	Atxuri
SEÑALIZACIONES EDER, S.A.	Telefonoz	Eraikuntza	ARITZ BIDEA	101	Belako
SURIA SUELOS TECNICOS, S.L.	Emailez	Eraikuntza	Lauaxeta Olerkari	52A, 05. PAB.	Atxuri
TALLERES BARRENA, S.L.	Telefonoz	Industria	LARRAGANE BIDEA	12	Trobika
TALLERES D. ELGUEZABAL, S.L.	Aurrez aurre	Industria	MARTINTXONE BIDEA	13	Trobika
TALLERES ELIZONDO, S.L. (EUROREPAR CAR SERVICE)	Telefonoz	Beste bat	Lauaxeta Olerkari	52A, 27-28. PAB.	Atxuri
TALLERES ELORZ, S.L.	Telefonoz	Industria	KARMELO ETXEGARAI	21. N PAB.	Billela
TALLERES LARGONE	Telefonoz	Beste bat	KARMELO ETXEGARAI	21. G PAB.	Billela
TALLERES ZABALONDO	Emailez	Zerbitzuak	ERRERUENA KALEA	04, B PAB.	Zabalondo
TSF INFORMATICA INDUSTRIAL, S.L.	Emailez	Industria	ERRERUENA KALEA	01, E PAB.	Zabalondo
TUBANSA	Telefonoz	Industria	Lauaxeta Olerkari	54, B PAB.	Atxuri
URRUTIA EDARIAK	Emailez	Zerbitzuak	ELORDUIGOITIA	33	Billela
URRUTIA LOGISTIKA, S.L.U.	Telefonoz	Zerbitzuak	TEJERA BIDEA	02, A	Belako
VIDRAUTO	Telefonoz	Beste bat	KARMELO ETXEGARAI	09. 03 PAB.	Billela
VIVEROS GONDRA, S.L.	Telefonoz	Beste bat	PLENTZIA BIDEA	27	Billela
ZURA GREEN, S.L.	Telefonoz	Eraikuntza	TEJERA BIDEA	19. B PAB.	Belako

9.3 Pasatako galdetegia

Mungiako arlo sozioekonomikoaren hizkuntza egoera ezagutzeko galdetegia / Cuestionario para conocer la situación lingüística del sector socioeconómico de Mungia

Mungiako Udalak herriko enpresetako hizkuntza egoera ezagutu nahi du. Horretarako, erraz betetzeko moduko galdetegi bat prestatu du. Eskertuko genizueke jarraian egiten zaizkizuen galderei zintzotasunez erantzutea, ahalik eta argazki errealena lortzeko. Aldez aurretik, mila esker! El Ayuntamiento de Mungia quiere conocer la situación lingüística de las empresas locales. Para ello, ha preparado un cuestionario fácil de rellenar. Os agradeceríamos que contestarais a las preguntas formuladas con sinceridad, para obtener una fotografía lo más real posible. Muchas gracias de antemano.

DATU OROKORRAK / DATOS GENERALES

1. Enpresaren izena / Nombre de la empresa *

2. Sektorea / Sector *

- ☐ Industria
- ☐ Zerbitzuak / Servicios
- ☐ Eraikuntza / Construcción

3. Harremanetarako pertsona / Persona para contacto *

4. Telefonoa / Teléfono *

5. Email

6. Webgunea

7. Langile kopurua / Número de empleados *

8. Emakumezko langileen kopurua / Mujeres empleadas *

9. Gizonezko langileen kopurua / Hombres empleados *

10. Baduzue euskara edo hizkuntza kudeaketa planik enpresan? / ¿Tenéis algún plan de gestión lingüística en la empresa? *

- ☐ Bai / Sí
- ☐ Ez / No
- ☐ Garai batean izan genuen, baina gaur egun ez / Lo tuvimos, pero actualmente no

11. Baduzue euskararen kalitate ziurtagiriren bat? / ¿Tenéis algún certificado de calidad de euskera? *

- ☐ Bai / Sí
- ☐ Ez / No *After the last question in this section, skip to question 13.*
- ☐ Garai batean izan genuen, baina gaur egun ez / Lo tuvimos, pero actualmente no

12. Zein ziurtagiri duzue? / ¿Qué certificado tenéis?

- ☐ Bikain
- ☐ Bai Euskarari

HIZKUNTZA GAITASUNA / CAPACIDAD LINGÜÍSTICA**13. Zenbat langilek dakite euskaraz hitz egiten? / ¿Cuántos trabajadores saben hablar en euskera? *****14. Horietatik zenbat dira emakumeak eta zenbat gizonezkoak? / ¿Entre los que saben hablar en euskera, cuántos son mujeres y cuántos hombres? *****15. Zenbat langilek ulertzen dute euskaraz (nahiz eta ez hitz egin)? / ¿Cuántos trabajadores entienden euskera, aunque no lo hablen? *****16. Horietatik zenbat dira emakumeak eta zenbat gizonezkoak? / ¿Entre los que saben hablar en euskera, cuántos son mujeres y cuántos hombres? *****17. Enpresako zenbat langilek dute harreman zuzena bezeroekin? / ¿Cuántos empleados tienen relación directa con los clientes? *****18. Bezeroekin harreman zuzena duten langileetatik, zenbatek dakite euskaraz hitz egiten? / ¿Entre los empleados que tienen relación directa con los clientes, cuántos saben hablar en euskera? *****19. Enpresako zenbat arduradunek dakite euskaraz hitz egiten? / ¿Cuántos directivos o responsables de la empresa saben hablar euskera? *****ERAKUNDEAREN IRUDIA / IMAGEN DE LA ORGANIZACIÓN**

Aukeratu ondorengo elementuetan erabiltzen duzuen hizkuntza / Elegid el idioma que utilizáis en los elementos que mencionamos a continuación.

20. Errotulu nagusia / Rótulo principal

- ☐ Euskara hutsean / Sólo euskera
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Ele bietan / Bilingüe
- ☐ Beste hizkuntza bat / Otro idioma

21. Bezeroei zuzendutako kartelak: produktuen izenak, oharrak, eskaintzak... / Carteles dirigidos a los clientes: nombres de los productos, avisos, ofertas...

- ☐ Euskaraz / En euskera
- ☐ Gehienak euskaraz / Mayoría en euskera
- ☐ Ele bietan / En bilingüe
- ☐ Gehienak gaztelera / Mayoría en castellano

- ☐ Gazteleraz / En castellano
- ☐ Beste hizkuntza bat / Otro idioma

22. Ordutegia / Horario

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Ele bietan / En bilingüe
- ☐ Beste hizkuntza bat / Otro idioma
- ☐ Ez dugu ordutegirik / No tenemos horario

23. Publizitatea (prentsan, herriko aldizkarian...) / Publicidad (en prensa, en la revista municipal...)

- ☐ Euskaraz / En euskera
- ☐ Gehienetan euskaraz / Más en euskera
- ☐ Ele bietan / En bilingüe
- ☐ Gehienetan gazteleraz / Más en castellano
- ☐ Gazteleraz / En castellano
- ☐ Ez dugu publizitaterik egiten / No hacemos publicidad

24. Webgune korporatiboa / La página web corporatiba

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Gehiena euskaraz / Mayor parte en euskera
- ☐ Ele bietan / En bilingüe
- ☐ Gehiena gazteleraz / Mayor parte en castellano
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Ez dugu webgunerik / No tenemos página web

25. Sare sozialetako argitalpenak: Facebook, Twitter, Instagram... / Publicaciones en redes sociales: Facebook, Twitter, Instagram...

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
- ☐ Ele bietan / En bilingüe
- ☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Ez dugu sare sozialik / No tenemos redes sociales

BEZEROEKIN HARREMANA / RELACIÓN CON LOS CLIENTES

26. Zuen bezeroen artean, ehuneko zenbat dira EAEkoak edo euskaradun lurralde batekoak? / Entre vuestros clientes, ¿qué porcentaje es de la CAV u otro territorio en el que se hable euskera? *

- ☐ <%50
- ☐ %50
- ☐ %50

EUSKAL HERRIKO BEZEROEKIN HARREMANA / RELACIÓN CON LA CLIENTELA DE EUSKAL HERRIA

Aukeratu kasu hauetan EUSKAL HERRIKO BEZEROEKIN erabiltzen duzuen hizkuntza / Elegid el idioma que habitualmente utilizáis en las siguientes situaciones CON LA CLIENTELA DE EUSKAL HERRIA

27. Telefonoa hartzean, zein hizkuntzatan egiten duzue lehenengo hitza? / Cuando cogéis el teléfono, ¿en que idioma saludáis?

- ☐ Euskaraz beti / En euskera siempre
- ☐ Gazteleraz beti / En castellano siempre
- ☐ Euskaraz gehiagotan / Más en euskera
- ☐ Gazteleraz gehiagotan / Más en castellano

- ☐ Ele bietan / En bilingüe

28. Telefonoz: deitu duena euskalduna bada, zein hizkuntzatan jarraitzen duzue elkarrizketa? / Por teléfono: si el que llama es euskaldun, ¿en qué idioma seguís la conversación?

- ☐ Euskaraz / En euskera
☐ Gazteleraz / En castellano
☐ Euskaz gehiagotan / Más en euskera
☐ Gazteleraz gehiagotan / Más en castellano
☐ Batek euskaraz hitz egin eta besteak gazteleraz erantzun / Uno habla en euskera, y el otro le responde en castellano

29. Aurrez aurre: zein hizkuntzatan egiten diezue lehenengo hitza bezeroei? / Presencialmente, ¿en qué idioma saludáis a la clientela?

- ☐ Euskaraz / En euskera
☐ Gazteleraz / En castellano
☐ Euskaraz gehiagotan / Más en euskera
☐ Gazteleraz gehiagotan / Más en castellano
☐ Ele bietan / En bilingüe

30. Aurrez aurre: bezeroa euskalduna bada, zein hizkuntzatan jarraitzen duzue elkarrizketa? / Presencialmente: cuando el cliente que ha entrado es euskaldun, ¿en qué idioma seguís la conversación?

- ☐ Euskaraz / En euskera
☐ Gazteleraz / En castellano
☐ Euskaraz gehiagotan / Más en euskera
☐ Gazteleraz gehiagotan / Más en castellano
☐ Batek euskaraz hitz egin eta besteak gazteleraz erantzun / Uno habla en euskera, y el otro le responde en castellano

31. Posta elektronikoz bezeroei bidalitako mezuak / Mensajes enviados por correo electrónico a los clientes

- ☐ Euskaraz / En euskera
☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
☐ Ele bietan / En bilingüe
☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano
☐ Gazteleraz / En castellano

32. Bezeroei zuzendutako inprimakiak: fakturak, aurrekontuak, tikea... / Impresos dirigidos a los clientes: facturas, presupuestos, tiques...

- ☐ Euskaraz / En euskera
☐ Ele bietan / En bilingüe
☐ Gazteleraz / En castellano

BARNE KOMUNIKAZIOA / COMUNICACIÓN INTERNA

Aukeratu kasu hauetan, gehienetan erabiltzen duzuen hizkuntza / Elegid el idioma que habitualmente utilizáis en las siguientes situaciones.

33. Langileei zuzendutako hizkuntza paisaia (errotuluak, oharrak, seinaletika, makinak erabiltzeko jarraibideak, prebentzio kartelak...) / Paisaje lingüístico dirigido a los empleados (rótulos, avisos, instrucciones de la maquinaria, carteles de prevención...)

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano
☐ Ele bietan / En bilingüe

34. Enpresa barneko idatzizko komunikazioa (emailak, oharrak...) / Comunicación interna escrita (emails, avisos...)

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
- ☐ Ele bietan / Bilingüe
- ☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano

35. Enpresako kideen eta langileen arteko ahozko komunikazioa / Comunicación oral entre los miembros y los empleados de la empresa

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
- ☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano

36. Langileen kontratuak / Contratos de los empleados

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Ele bietan / Bilingüe

37. Nominak / Nóminas

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano
- ☐ Ele bietan / Bilingüe

38. Barne dokumentuak (memoriak, barne arauak, prozedurak eta protokoloak, kalitate dokumentuak...) / Documentos internos (memorias, normativa, procedimientos y protocolos, documentos de calidad...)

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
- ☐ Ele bietan / Bilingüe
- ☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano

39. Baliabide informatikoak: ordenagailuetako softwareak zein hizkuntzatan instalatuta daude? / Recursos informáticos: ¿en qué idioma están instalados los softwares informáticos?

- ☐ Euskara hutsean / Sólo en euskera
- ☐ Euskaraz gehiago / Más en euskera
- ☐ Ele bietan / Bilingüe
- ☐ Gazteleraz gehiago / Más en castellano
- ☐ Gaztelera hutsean / Sólo en castellano

HORNITZAILEAK / PROVEEDORES**40. Zure hornitzaileen zein portzentaje da EAEkoa edo euskaradun lurralde batekoa? / ¿Qué porcentaje de tus proveedores es de la CAV o de algún territorio en el que se hable euskera?**

- ☐ 0
- ☐ <%50
- ☐ %50

- ☐ >%50

☐

KANPO HARREMANAK / RELACIONES EXTERIORES

Zein hizkuntzatan erlazionatzen zarete ondorengo bakoitzarekin? / ¿En qué idioma os relacionáis con cada uno de los siguientes?

41. Administrazioarekin / Con la administración

- ☐ Euskaraz / En euskera
- ☐ Gaztelaniaz / En castellano
- ☐ Euskaraz gehiagotan / Más en euskera
- ☐ Gaztelaniaz gehiagotan / Más en castellano
- ☐ Ele bietan / Bilingüe

42. Hornitzaileekin/ Con los proveedores

- ☐ Euskaraz / En euskera
- ☐ Gaztelaniaz / En castellano
- ☐ Euskaraz gehiagotan / Más en euskera
- ☐ Gaztelaniaz gehiagotan / Más en castellano
- ☐ Ele bietan / Bilingüe
- ☐ Beste hizkuntza bat / Otro idioma

43. Kolaboratzaileekin / Con colaboradores

- ☐ Euskaraz / En euskera
- ☐ Gaztelaniaz / En castellano
- ☐ Euskaraz gehiagotan / Más en euskera
- ☐ Gaztelaniaz gehiagotan / Más en castellano
- ☐ Ele bietan / Bilingüe
- ☐ Beste hizkuntza bat / Otro idioma

KUDEAKETA SISTEMA / SISTEMA DE GESTIÓN

44. Kontratazio politikan, euskara baloratzen da? / En vuestra política de contratación, ¿se valora el nivel de euskera?

- ☐ Bai / Sí
- ☐ Ez / No

45. Baiezkoa bada, nola baloratzen duzue euskara? / Si la respuesta anterior ha sido afirmativa, ¿cómo valoráis el euskera?

46. Hizkuntza kudeaketarako baliabiderik baduzue? (Aurrekontua, pertsonala...) / ¿Tenéis recursos para la gestión lingüística? (Partida presupuestaria, personal...)

47. Ezagutzen dituzue Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako hizkuntza kudeaketarako diru laguntzak? / ¿Conocéis las subvenciones para la gestión lingüística de la Diputación de Bizkaia y el Gobierno Vasco?

- ☐ Bai, baina ez ditugu inoiz eskatu / Sí, pero no los hemos pedido nunca
- ☐ Bai, eta erabili ditugu noizbait / Sí, y las hemos utilizado alguna vez
- ☐ Ez / No

HIZKUNTZAREKIKO JARRERA / ACTITUD HACIA EL EUSKERA

48. Prest egongo zinateke zerbitzu hizkuntzan (bezeroei zuzendutakoa) euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzeko? / ¿Estarías dispuesto a adoptar medidas para fomentar el uso del euskera en el idioma de servicio dirigido a los clientes?

- ☐ Bai / Sí
- ☐ Ez / No
- ☐ Pentsatuko nuke / Me lo plantearía

49. Prest egongo zinateke zure enpresako lan hizkuntzan euskara ere txertatzeko: kartelak, errotuluak, langileek euskaraz ikasteko baliabideak...? / ¿Estarías dispuesto a incluir el euskera en el idioma de trabajo de tu empresa: carteles, rótulos, recursos para que los empleados aprendan euskera...?

- ☐ Bai / Sí
- ☐ Ez / No
- ☐ Pentsatuko nuke / Me lo plantearía

50. Prest egongo zinateke, baliabideak eskainiz gero, zure enpresan hizkuntza kudeaketa plan bat abian jartzeko? / ¿Estarías dispuesto, si se te ofrecieran los recursos necesarios, para poner en marcha un plan de gestión lingüística?

- ☐ Bai / Sí
- ☐ Ez / No
- ☐ Pentsatuko nuke / Me lo plantearía

ESKERRIK ASKO! / ¡MUCHAS GRACIAS!

Eskerrik asko diagnostiko honetan parte hartzeagatik eta zure ekarpena egiteagatik.

Muchas gracias por participar en este diagnóstico y por hacer tu aportación.